

# BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 10 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira.</li> <li>• Bi irakurgai eta guztira 25 item.</li> <li>• Lehenengo ariketan item bakoitzak 1,6 puntu balio du; bigarreanean 0,6 puntu.</li> <li>• Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>• Testuen luzera guztira: 750 hitz gehienez.</li> </ul>	30 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ariketa bakarra egin behar da eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</li> </ul>	40 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.

### 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderari.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

## HAUR ETA NERABEEN AURKAKO SEXU-ABUSUAK ANTZEMATEKO TRESNA

Ez da samurra haur eta nerabeen aurkako abusuak egoki antzematea. Umeen aurkako indarkeriak ertz asko ditu, eta «oso konplexua» da horiek detektatzea. Adingabeenganako indarkeriaren egoeraren berri eman zuten atzo Lide Amilibia Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketarako sailburuordeak, Ainara Canto EDE fundazioko ikerketa arduradunak eta Rosa Lizarraga Agintzari kooperatibako psikologoak. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako haur eta nerabeenganako abusuak aztertzen dituen txostena aurkeztu zuten agerraldian. Txosten horretan bilduta daude adingabeenganako abusuak hobeto ulertzeko gakoak, eta baita horiek aurreikusteko eta detektatzeko neurri eta tresnak ere. Horietako bat da sexu-abusuen kasuak identifikatzeko profesionalentzat garatu duten kontrol-tresna: *Screening.agintzari.com*

Lizarragak nabarmendu duenez, bost pertsonatik batek sexu-indarkeria motaren bat jasan du, baina salatzen diren abusuen artean % 2 bakarrik dira mota horretakoak. Sexu-abusuak oso denbora gutxian «tabu izateari» utzi eta prebentzio eta lehentasunezko jarduera-esparru bihurtu dira erakunde publikoentzat eta osasun, justizia eta hezkuntza alorretan lan egiten dutenentzat, baina gaur egun ez dago baliabide nahikorik horiek antzemateko. Areago, haur eta nerabeen sexu-abusuak detektatzea da profesionalak izan ohi duten arazo nagusia. Izan ere, oso konplexua da abusuak antzematea, Amilibiak azpimarratu duenez: «Ez dago sexu-abusuaren jokabide-adierazle espezifikorik, ezta bakarra denik ere. Tratu txar mota baten adierazleak ez dira espezifikoak, eta beste arazo batekin egon daitezke lotuta». Arazoari irtenbidea emateko garatu dute kontrol-tresna berria. Horren bitartez, hurrekin ohiko harremana duten profesionalak ezagutza egokia eskaini nahi zaie sexu-esplotazioari eta abusuari buruz, baita horiek antzemateko baliabideak eta haien berri emateko kanal egokiak bermatu ere.

Tresna berriaren funtzioaz xehetasunak eman zituen Lizarragak. Kontrol-tresna moduan diseinatu dute, profesionalak orientatzeko sexu-abusuen susmoak dituztenean. Horretarako, sexu-abusuak detektatzeko 50 adierazlerik egokienak aukeratu dituzte. Edozein herritarrek erabil dezake tresna, baina bereziki profesionalentzat pentsatuta dago, hots, hezkuntza-, osasun- eta gizarte-zerbitzuetako langileentzat. Testa Internet bidez egin daiteke eta, hura erabiltzean, ez da zantzurik uzten; beraz, ez dago jakiterik tresna nork erabili duen, ezta webgunean egiten den kontsultaren xede den ume edo nerabea nor den ere.

Txostenaren harira, gogoeta egin zuen EDE fundazioko ikertzaileak: «Alde oso esanguratsua dago dauden kasuen eta erregistratzen direnen artean». Txostenaren datuen arabera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako indarkeria-kasuen % 10 baino gutxiago salatzen dira hartzaroen edo nerabezaroen, hau da, indarkeria pairatzen den unean. Gainera, batez beste, legezko prozesuak hiru urtez luza daitezke, eta abusuak salatu dituzten hurrek lau aldiz kontaktu behar izaten dute pairatutako indarkeria. Familiek jasotzen dituzten laguntzei dagokienez, txostenak dio askotan ez dela baliabide nahikoa jartzen abusu-kasu batek haiengan eragin dezakeen «inpaktu negatiboa» arintzeko.

Datuok kezkarriak izanda ere, haurren aurkako indarkeria «eragotzi» daitekeela azpimarratu zuen Cantok. Horretarako, ikuspegi integrala duen «prebentzio estrategia bat» garatzea proposatu zuen, erantzunak azkartuz, hurrei eta nerabeei «gehiago entzunez» eta emozioan oinarritutako hezkuntza afektibo-sexuala indartzuz.

## 1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. **Zer bildu dute adingabekoenganako abusuei buruzko txostenean?**
  - a) Biktimak artatzeko profesionalentzako tresnak.
  - b) Sexu-abusuak antzeman osteko hainbat neurri.
  - c) Abusuak hobeto ulertzeko zergatiak, besteak beste.
2. **Zerk zailtzen du adingabekoenganako sexu-abusuak detektatzea?**
  - a) Abusuak beste arazo batekin erlazionatuta egon ahal izateak.
  - b) Jokabide horiek azaltzen dituzten kausak espezifikoak izateak.
  - c) Baliabideak egon arren, profesionalek ezagutza eskasa izateak.
3. **Zer azaldu du Lizarragak tresna berriari buruz?**
  - a) Profesionalek baino ezin dutela erabili, lanean orientatzeko baita.
  - b) Interneten bidez egiten denez, erabiltzailea nor den jakin daitekeela.
  - c) Umea edo nerabearen nortasunaren anonimotua bermatuta dagoela.
4. **Zer arazo egoten da indarkeria pairatzen den unean ez salatzeo?**
  - a) Familiak jasotzen dituzten dirulaguntzak ez direla nahikoak.
  - b) Legezko prozesuak luzeak ez ezik, zailak ere badirela haurrentzat.
  - c) Erregistratzen diren kasuak ugari direnez, prozesua hiru urtez luza daitekeela.
5. **Zer proposatzen du Cantok haurren indarkeria eragozteko?**
  - a) Hezkuntzan gaia tratatzea, emozioak alde batera utzita.
  - b) Sexu-abusua pairatu duenari gehiago entzutea.
  - c) Abusuen araberako prebentzio-estrategiak garatzea.

## 2. ariketa

**Hutsuneak bete.** Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

### NESKA, EZ DUZU ZIENTZIALARI ITXURA

Emakumeek eta neskek zientzian berdintasunezko parte-hartzea izateko helburuarekin, otsailaren 11n Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna **6** erabaki zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2016an. Aukera-berdintasunak **7** egon beharko lukeela iruditzen zaigun arren, datuek garbi erakusten dute **8** dela zientzia-eremuan genero-bereizketa, gaur egun ere. Adibidez, Emakundek 2016an egindako **9** baten arabera, alde handia dago batxilergoko neska-mutilek aukeratzen dituzten ikasketetan, **10** arabera. Neskek osasun-zientzien, psikologiaren eta irakasle-ikasketen alde egiten dute; eta mutilek, **11**, nahiago izaten dituzte ingeniariak. Aukeraketa horren atzean genero bakoitzari **12** zaizkion gaitasunei buruzko estereotipoak daude: barneratua dugu emakumeak gizonak baino **13** direla zaintza-lanetarako, eta gizonak lan teknologikoetarako.

Eragile asko ari dira lanean estereotipo horiek **14**. Baina lana ez zaie hor amaituko, beste faktore batzuek ere **15** baitute bereizketa horretan, tartean, itxura fisikoak. Sarah Banchevsky ikertzaileak 2016an argitaratutako artikuluan baten **16** ez du zalantzarako tarterik uzten: «Ez duzu zientzialari itxura, baina!». **17** femeninoa duten emakume zientzialariek egokiera gutxiago dute zientzialaritzat hartzeko. Artikuluan, bi esperimenteren **18** aurkezten ditu Banchevsky-k. Haietako batean, Internetetik hartutako 80 zientzialariren argazkiak erakutsi zizkieten boluntarioei. Boluntarioek esan behar zuten zeren itxura hartzen zieten argazkietako pertsonen: emakumeen kasuetan, zenbat eta itxura femeninoagoa izan, orduan eta **19** gehiago irakasletzat jotzeko. Gizonezkoetan, ordea, ez zegoen alderik. Bigarren esperimentera ere antzekoa izan zen, eta ondorioa, berbera: emakumeentzat, itxura femeninoa eta zientzia-jarduera **20** dira.

Komunikabideetan emakume zientzialariek ematen den ikuspegiak izan lezake eragina batzuen eta besteen estereotipoetan. **21**, protagonista zientzialari bat denean, emakumea bada, oso ohikoa da haren itxura fisikoari buruzko **22** bat egotea. Hori ez da gertatzen zientzialaria gizona bada. Argazkietan ere badago aldea: gizonezkoak normalean beren lan-ingurunean **23** dira, itxura bereziki zaindu gabe; emakume zientzialariak, berriz, testuingurutik kanpo eta **24**.

Horrek guztiak erakusten du arazoaren **25** sakonak eta ugariak direla. Ea, otsailaren 11n ez ezik, urteko gainerako egunetan ere gogoan izaten dugun.

GALARRAGA, A. *Elhuyar aldizkaria*. 2018ko urtarrilaren 29a. Egokitua

**2. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia**

6. a) mugatzea  
b) izendatzea  
c) alderatzea  
d) izenpetzea
7. a) bilduta  
b) banatuta  
c) bermatuta  
d) baztertuta
8. a) nabarmena  
b) ulergaitza  
c) zalantzazkoa  
d) korapilatsua
9. a) lehiaketa  
b) prestaketa  
c) hautaketa  
d) azterketa
10. a) generoaren  
b) keinuaren  
c) leloaren  
d) gogoetaren
11. a) esaterako  
b) behintzat  
c) horrezkero  
d) berriz
12. a) eskaintzen  
b) agortzen  
c) esleitzen  
d) askatzen
13. a) traketsagoak  
b) egokiagoak  
c) harroagoak  
d) apalagoak
14. a) ezkutatzeko  
b) errazteko  
c) eragozteko  
d) ezeztatzeko
15. a) kudeatzen  
b) zehazten  
c) eragiten  
d) menderatzen
16. a) izenburuak  
b) irabaziak  
c) iraupenak  
d) ibilbideak
17. a) Lagin  
b) Irudi  
c) Molde  
d) Iruzkin
18. a) bideak  
b) arriskuak  
c) huskeriak  
d) emaitzak
19. a) eredu  
b) aukera  
c) oztopo  
d) sarrera
20. a) erabilgarriak  
b) susmagarriak  
c) kontrajarriak  
d) osagarriak
21. a) Izan ere  
b) Batez ere  
c) Era berean  
d) Bide batez
22. a) adimenen  
b) oroimenen  
c) ikusmenen  
d) aipamenen
23. a) azaltzen  
b) berritzen  
c) miatzen  
d) neurtzen
24. a) araututa  
b) ohartuta  
c) apainduta  
d) hunkituta
25. a) premiak  
b) sustraiak  
c) ikurrak  
d) eskariak

### Oharrak

- Ondoren, ariketa bakarra duzu.
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
  - Ideiak garbi adierazi dituzun.
  - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.  
EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.**

Gaia kontuan hartuta, iritzia eman behar duzu herriko aldizkarian, *Herritarren txokoa* sailean.  
**Gutxienez 125 hitz** idatzi behar dituzu.

**GAIA:** Kostaldeko herri bateko biztanlea zara. Jakin berri duzu Udalak herriko kaia egokitzeko asmoa duela; bertan turisten belaontziak eta yateak porturatzeko, eta herriari bultzada ekonomikoa emateko. Baina, herritar askok ez dute proiektua begi onez ikusten.

Gaiaren garrantziaz jabeturik, erabaki duzu iritzia ematea herriko aldizkarian.

Idatzi zure herrian zer gertatzen ari den, Udalaren egitasmoak zer on eta zer txar ekar dezakeen, zergatik eta eman zure iritzia.

Zirriborroetarako lekua



Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1. ariketa.** aukera anitzeko galderak.

■ **Irakurgaia:** «HAUR ETA NERABEEN AURKAKO SEXU-ABUSUAK ANTZEMATEKO TRESNA»

1.	C	2.	A	3.	C
4.	B	5.	B		

■ **2. ariketa.** hutsuneak bete.

■ **Irakurgaia:** «NESKA, EZ DUZU ZIENTZIALARI ITXURA»

6.	B	7.	C	8.	A
9.	D	10.	A	11.	D
12.	C	13.	B	14.	D
15.	C	16.	A	17.	B
18.	D	19.	B	20.	C
21.	A	22.	D	23.	A
24.	C	25.	B		